ESKIULA

Ikus *“Ekialdea Webgunea. Jeruntze eta Eskiula”*

Errana den bezala, ESKIULA, "Biarnoko barrendegi eüskaldüna", hirugerren milurtekoaren sargian, herri zohardi, bizitore eta goxoa da. Bere 521 arimekin, berriz erakutsi gei dü zoin etxekirik den bere xiberotar erroer: 2000 urteko pastoralaren antolatzeari lotü da! Kontseilü gaztea batarzünean ari da herriaren prestatzen, amoregatik eta hirugerren milurtekoan herria sar dadin karta honekin. Lehen arrenküra 2000 urte huntan, herriko hur erabilien sanotzeko xedearen betatzea dü.

Hebenko jentea, düala hogei bat urte orano, laboraria beitzen haboroxea, langilegoalat igaraiten ari da geroago eta haboro. Eiki etxalteak itzaltzen ari dira bata bestearen ondotik. Ordariz etxeko seme hanitxek, langile beitira Olorue aldean, egoitza eijerrak eraikitzen dütüe etxondoko lürretan. Gaineala alokatzeko egoitzen arraberritzea lagüntü beitüe kontseilü desbardinek, emendatüz joan da jentetzea.

Bi ikasgeletako eskola bat badago herrian, hogeita hamar bat haurrekin, eta lehen maileko ikasketak egiten dütüe hor baldintza hoberenetan. Gazte-gazterik eskiulatarrek ikasten düe pelotakan, kantan eta dantzan kültürako alkarteetan, lagüntzale trebeekin, erakasten beiteitze funtsezko jakintza ezbardinak, eta horier esker egiazko eüskaldünak dirate, beren erroer etxekiak.

1998-ko üdalano bere erretore bazüan iruski ESKIULAK. Orai Xiberoko beste parropiekin partekatü behar dü. Bestetako batzorde aisik batek urte oroz antolatzen dü lehiaketa maitagarri bat arrabotü zaharrean, eta süstut ohiko besta elibat, esküalde ttipitik eta departamentütik ere hürrün famatürik beitira.

ESKIULAN pintatürik dirade ofiziale trebe eta ezagütü zonbait, karrikünearen antolatzean parte hartzen dü prefosta, bena üngürünetan ere hedatzen dü beren ganoa. Bi ostatü desbardinek (horrez maitagarriago beitira) deitzen dütü horko jaki berezien txestatzera hürrüntik horra diren ahoxuriak. Laborariek beren alkartarzüna erakusten düe GUMA batetan jüntatüz, tresna orokor karioen alkarrekin erosteko. Merkatüetan arrakasta handia düe haien hazkuntzetako ekoizkinek, eta beraz aisa dira saltzen.

Erran dezagün gaineala ESKIULAK hanitx harreman honak dütüala herri auzoekin, eüskaldün ala biarnesekin. Eta sekulan eüskal departamentü bat sor baledi, haütü neke bati bürüz lizateke, alde batetik belüke arrazua (bizipidez Oloruerat dü ixurgia), bestetik bihotza (eüskaldün izan eta egoiteko xede zina...).